



# TXIKITTO!

2023ko martxoa 215. zenbakia



**EUSKARAZ MURGILDU,  
JOLASTU ETA GOZATU**

# AURKIBIDEA

<b>TXISTEAK</b> .....	<b>3</b>	<b>DENBORAPASAK</b> .....	<b>11-13</b>
<b>IKASLEEKIN</b> .....	<b>4-5</b>	<b>ZER IRAKURRI</b>	
<b>BERRIKETAN</b>		<b>BITXIKERIAK</b> .....	<b>14</b>
<b>IKASTETXEETAKO</b> ....	<b>6-7</b>	<b>IPUINA</b> .....	<b>15</b>
<b>BERRIAK</b>		<b>ZU BAI MARGOLARI</b> ..	<b>16</b>
<b>AMAMAREKIN BERBETAN</b> ..	<b>8-9</b>		
<b>NI BAI ARTISTA</b> .....	<b>10</b>		

 **eta kitto!**  
euskara elkarteak

**Argitaratzailea**  
“...eta kitto!”  
Euskara Elkarteak  
Urkizu, 11  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776

**Erredakzio-  
kontseilua**  
Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak

**Administrazioa**  
Marisol Uriarte

**Erredakzioa**  
Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar

**Ikusentzunezkoak**  
Yanire Sagredo

**Azaleko argazkia**  
Arrateko Andra Mari

**Copyright-a**  
Txikitto!

**Lege-gordailua**  
SS-1111/96





Gizon batek ahuntza darama sokara lotuta, eta gizon batek galdetzen dio:

- Nora zoaz txerri honekin?
- Ez da txerria, ahuntza da- erantzuten dio ahuntza daraman gizonak.

Eta berriro esaten dio beste gizonak:

- Ez nengoen zurekin hitz egiten, ahuntzarekin baizik.



Amama bat eta ume bat paseoan doaz. Umeak lurrean txikle bat ikusten du eta hartzera doa. Amamak esaten dio:

- Ume, lurreko gauzak ez dira hartzen. Pixka bat beranduago amama lurrera jausten da eta esaten dio umeari:
- Ume, lagundu!

Eta umeak erantzuten dio:

- Ez, ez, lurreko gauzak ez dira hartzen.



Hortzak garbitzeko zepilloak:

- Batzuetan lan txarra dudala pentsatzen dut...

Komuneko paperak:

- Bai??... Ziur zaude??

Zer esaten dio harri batek besteari?  
Ezer ez, harriek ez dute hitz egiten.



Egun batean ume batek amari esan zion:

- Zergatik sartzen duzu pijama burkoaren azpian?
- Ez zimurtzeko- esan zion amak.
- Zergatik ez duzu orduan amona sartzen azpian?



# Euskaraz jolastu, gozatu eta ondo pasatu!



BIDEOA

Arrateko Andra Mari ikastetxeko 6. mailako ikasleak Hondarribiko Euskal Girotze Barnetegian egon dira lau egunez, otsailaren amaieratik martxoko lehen egunetaraino. Esperientzia zoragarria bizi izan dutela kontatu digute.

## RAYAN ZAID



Hondarribia Gipuzkoako kostaldeko herri historiko bat da. Hotel berezi bat du, Hondarribiko Paradorea deitzen dena. Lehen gaztelu bat zen. Frantziarekin gerran itsasontzi frantsesak Bidasoa ibaitik pasatzen ziren eta horregatik jarri zuten gaztelua defentsa moduan. Orain hotel bat da. Hondarribin bizi nahi baduzue, dirua oso kontuan hartu beharko duzue, garestia da-eta, baina oso herri polita da.

## SONIA MENDY



Hondarribiko barnetegia oso handia eta bikaina da. Bi patio ditu: batean eskubaloian eta saskibaloian egin daiteke eta, bestean, futboleant. Lo egiteko 12 logela ditu. Behean zuzendaritza eta egongela bat. Beheko aldean kafe-makina dago, irakasleentzat, guretzat ez. Komun handi bat eta jangela eder bat daude. Berriz ere bueltatzeko gogoz nago.

**ANAS BOUTRASSEYT**

Ederto pasatu dut Hondarribiko Euskal Girotze Barnetegian. Bertan prestatutako janaria nere ustez bikaina izan da. Astelehenean iritsi ginenean euri tanta batzuk ari ziren, baina egun horretan besterik ez. Gainerako egunetan oso eguraldi ona egin digu. Gauza pila bat egin ditugu eta oso ondo pasatu dugu.

**BRITANY SAMANTHA VILLAQUIRAN**

Barnetegiko logelak oso erosoak ziren eta janaria oso gozoa: pizza, makarroiak, izozkiak, txokolatzeko palmerak... Erronkak eta jolasak egin genituen. Pelikula bat ere egin genuen eta itsasontzi batean bueltatxo bat eman genuen.

**NAHIA ROSARIO**

Primeran pasatu dut eta berriro joateko gogoak daukat. Gauza asko egin daitezke, baina ez guk nahi bezain beste. Gu saiatu ginen baina ezin izan genituen denak egin. Irakasleek logura handia ekarri dute eta guk ere bai. Balorazioa egiterakoan denok esan dugu zoragarria izan dela. Hondarribi, bueltatuko gara!

**MOHAMED HIMRI**

Barnetegiko monitoreak oso jatorrak ziren. Jolas pila bat egin genituen, haiekin ibili ginen futboleak, ping-pong-eak, saskibaloia... Bozketa bat ere egin genuen pelikula bat aukeratzeko, eta han prestatu diguten janaritik den-dena gustatu zait, beno, hamaiketakoak ez hainbeste.



## SAN ANDRES

San Andres ikastetxeko 6. mailako ikasleek bigarren hiruhilekoan zehar "Mundua eta geografia" proiektua landu dute. Ikasleen usteetatik abiatuta, adituek diotena aztertzeraz pasatu dira: lur planetaren ezaugarriak, egitura, barneko zein kanpoko geruzak... Lurraren sorrerarekin lotuta Zumaiako Algorri Interpretazio Zentrora egin zuten bisita eta Flysch-a ezagutu zuten.



## ARRATEKO ANDRA MARI



6. mailako ikasleak Hondarribiko Euskal Girotze Barnetegian egon ziren. Ze esperientzia polita!!! 5. eta 6. mailako ikasleek Sare Lagun tailerra izan zuten martxoaren 7an eta kontsumo-tailerrak martxoaren 8an. Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko egunean denon artean horma-irudi zoragarria egin genuen, gora emakumeak!!!! Eta a zer nolako kazetariak ditugun eskolan!!!! Buru-belarri ari dira gure ikasleak irratsaio biribilak prestatzen. 4. mailako ikasleek "Itsaspeko bihotzak" saio literarioa izan zuten herriko liburutegian. 3. eta 4. mailakoak Deba Behea ezagutzera joan ziren eta 5. mailako ikasleek "Alpistegia" bertso-antzerkia izan zuten Portalean.

## LA SALLE

Azken asteotan topera izan dugu agenda. Nagusien egoitzara bisita, auzotik bueltatxo bat inguruan dugunaz ohartzeko, martxoak 8a morez bizi izan genuen eta egun berean LH6koak Albaolara joan ziren txangoan. Berbetan programaren barruan aitxitxa/amamen bisita, LH4koak Lurraskara joan ziren gau bat pasatzera, Proyde-Proega astea ere ospatu genuen, Argentinan burutzen ari den proiektu batentzat dirua lortzeko asmoz; LH5ekoak Alpistegia ikustera joan ziren, eta hiruhilabetea biribiltzeko, euskal astea izan genuen, Mattin kukua eta euskal pertsonaia ospetsuen bisitekin.





## AMAÑA

Martxoaren 1ean Porrotxen bisita izan genuen Amaña eskolan. Aspanogiko partaide bezala, bere zereginaz hitz egiteaz gain, gereziondo bat landatu genuen gaixorik eta utzi gaituzten haurren omenez. Gainera, zuhaitzaren inguruan, eskolako guztiek margotutako harritxoak izenekin jarri genituen. Bisitaldia oso-oso hunkigarria izan zen eta primeran pasa genuen Porrotxen umorearekin.



## ALDATZE

Aldatze Ikastetxeko LH4. mailako ikasleok "Itsaspeko bihotzak" areto literarioan parte hartu genuen martxoaren 7an. Emakumearen nazioarteko egunaren bezperan, genero berdintasunaren gaia lantzeko aukera eduki genuen euskarazko ipuinen eta bestelako arte adierazpenen bitartez. Marik itsaspean murgildu eta ibilibidean zehar gidatu gintuen, gure bihotzak zirrarez betez. Kuxin gainean eserita, ipuin zoragarriak entzun eta irakurtzeko aukera eduki genuen. Ederto pasatzeaz gain, asko hausnartu eta ikasi genuen. Berdintasuna gure esku ere badago!



## URKIZU

HH5 eta LH 1eko ikasleek "Jira-bueltan" programaren barruan, euskal-jolasak ikasi zituzten bazkal ondorengo denboran. LH3koak Ipurua futbol zelaira joan ziren eta "Euskararen baloiaren" kondaira ezagutu zuten jokalariren ahoetatik. Ikasturte honetako "Ezetx asmatu" lehiaketaren bigarren ekitaldiari amaiera eman genion eta antzerki bikaina eskaini ziguten 6. mailakoek. Lupe Lekuona ipuin kontalariaren bisita ere jaso genuen. LH4koak Errebalera joan ziren "Itsaspeko bihotzak" erakusketa ikustera. Liburuen bitartez berdintasuna eta emozioak landu zituzten. Eta martxoaren 8an, "Emakumeen eguna ospatzeko" oso egitarau zabala izan dugu eskolan.



## MOGEL IKASTOLA

J.A.Mogel ikastolako 5. mailako ikasleek Euskara indartzeko barnetegietara joateko aukera izan dute. Hondarrabia, Zerain, Gorozika eta Lemoiz ezagutzeko eta euskaraz bizitzeko helburuarekin joan dira. Honetaz aparte, euren arteko harremanak sendotzeko baliagarria izan da ere. Zorioneku!



## MARA PRIETO ETA AMALIA (LU) CARBALLO:

# "Pozik nago euskara ikasi izanagatik"

Amalia ('Lu' esaten diote) Ourensen (Galizia) dagoen Baldrei izeneko herrixka txiki batean jaio zen. Nerabea zenean etorri zen Eibarrera eta hemen egin du bizitzaren zati handiena. Hemen jaio zen Mara iloba, eta elkarrizketa goxoa eduki dute bien artean, euskaraz. Izan ere, Galiziako jatorria izan arren, Luk euskara ikasi zuen orain dela urte batzuk eta bikain moldatzen da.

**Kaixo, amama zer moduz zaude?**

Kaixo, Mara! Oso ondo nago.

**Noiz eta non jaio zinen?**

1956an jaio nintzen Galizian, Ourenseko herrixka txiki batean. Baldrei du izena.

**Umea zinenean, nola bizi zineten Internet eta ordenagailu gabe?**

Ondo konpontzen ginen. Entziklopedietan bilatzen genuen behar genuen informazioa, eta musika eta nobelak irratian entzuten genituen. Izan ere, telebistarik ere ez genuen.

**Zelan gogoratzen dituzu eskolako urte haiek?**

Zoriontsua izan nintzen. Gurasoak eta irakasleak oso zorrotzak ziren eta azalpen gutxi ematen zizkiguten, baina bestela ondo.

**Zer egiten zenuen denbora librean?**

Jolasten eta ahizpa txikiak zaintzen pasatzen nuen denbora.

**Nora joaten zineten oporretan?**

Uda batzuetan amamaren etxera joaten ginen, baina beste batzuetan hemen geratzen ginen, etxean.

**Noiz izan zenuten etxean lehenengo autoa?**

14 urte nituenenean erosi genuen lehen autoa. R7 motako autoa zen.

**Kotxerik gabe nola mugitzen zineten?**

Autobusean edo trenean.







### **Noiz ezagutu zenuen telebista?**

10 urte inguru nituenean ezagutu nuen telebista, herriko taberna batean. Etxean ez genuen, beraz, tabernara joaten ginen telebista ikustera.

### **Zelan moldatzen zara teknologia berriekin?**

Konpontzen naiz. Askotan laguntza behar dut laneko kontuetarako, baina bestela ondo konpontzen naiz.

### **Zure ustez zein izan da azken urteotako asmakizunik onena?**

Internet izan dela esango nuke.

### **Zertan aldatu da Eibar gehien bat?**

Eibar asko aldatu da. Adibidez, eskailerak eta aldapak igotzeko, eskailera mekanikoak eta igogailuak ditugu.

### **Zer botatzen duzu faltan lehengo Eibartik?**

Merkatu plaza, batez ere. Orain duguna ez da gauza bera.

### **Zure ume denboratik gaur egunera arte emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunean aurreratu dela uste duzu?**

Baietz uste dut. Adibidez, amatasun eta

aitatasun baimenak berdinak dira orain. Zaintzan, dirulaguntzetan eta beste gauza batzuetan ere aurrerakuntzak eman dira.

### **Zenbat denbora daramazu euskara ikasten? Nola daramazu? Zergatik animatu zinen?**

Seme-alabak txikiak zirenean Guraso Eskolara joan nintzen euskara ikastera, baina egun batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Orain dela hamar urte, lanean euskararen titulua eskatu ziguten eta euskaltegian izena eman nuen. Bost urte inguru egin nituen bertan eta titulua eskuratzea lortu nuen. Hortik aurrera, eguenero berbalagun talde bat biltzen gara euskaraz berba egiteko. Pozik nago. Euskara ikasi nahi nuen, ez bakarrik lanerako, baizik eta nire umeekin berba egiteko. Garrantzitsua dela iruditzen zait.

### **Eibarren euskara nahikoa egiten dela uste duzu?**

Gero eta gehiago egiten dela uste dut.

### **Zer egin dezakegu euskararen erabilera bultzatzeko?**

Hitz egitea. Dakiguna, behintzat, esatea. Etxean, kalean, umeekin, lagunekin, dendetan... Hitz egin behar da, nahiz eta esaldi laburrak edo agurrak izan.



# Artilezko globoak

Jai baterako edo zuen gela dekoratzeko ideia zoragarri eta koloretsua proposatzen dizugu.

## MATERIALA:

- Kolore ezberdinetako artilea
- Itsasgarria
- Globoak
- Baselina
- Makil bat edo soka bat globoak eskegiteko
- Katilu bat nahasketa egiteko
- Guraizeak
- Arto-fekula
- Plastikozko mantela



## NOLA EGIN:

- 1- Globoak puztu, nahi duzuen tamainan.
- 2- Lan egiteko espazioa prestatu. Horretarako, makil bat bi aulkiren artean jarri eta lehortzeko espazioa sortuko duzue. Azpian plastikozko mantela jarri.
- 3- Artile zati bat globoaren enborraren inguruan lotu eta globo bakoitza hagan eskegi, elkar ukitu gabe.
- 4- Globo bakoitza baselinarekin igurtzi. Horrela, artilea ez da globoa itsatsiko.
- 5- Aldi berean, itsasgarri ontzi bat arto-fekularekin (katilu erdia) eta urarekin (katilu laurdena) nahastu.
- 6- Nahasketa loditzen denean, artilea itsasgarrian sartu eta soberakina zukutu.
- 7- Artilea modu horizontalean gurutzatu, eta globoaren zati gehiena estali ondoren, artilea moztu eta enborretik hurbil lotu korapiloa ezkutatzeko.
- 8- 24 orduz lehortzen laga, globoak zulatu eta geratzen diren zatiak kendu.

## KARTOIZKO ONTZAK


Eskulan hau egiteko kartoia, margoak eta errotulagailua besterik ez ditugu behar. Oso ideia originala, erraza eta dibertigarria da! Egiteko, paper higienikoren hodiak erabiliko ditugu. Bi muturretako bat estutu eta tolestu egingo dugu, ertzak erditik tolestu arte. Eta, gero, margotzera! Lehendabizi hodia margotuko dugu eta, ondoren, ontzen aurpegiak marraztuko ditugu. Eta kitto, hori da dena!




TI-TA



## 7 DESBERDINTASUNAK




## LABIRINTOA





### OSATU IRUDIA



### HIZKI ZOPA



- |                  |           |           |
|------------------|-----------|-----------|
| <b>Animaliak</b> | Hontza    | Oso panda |
| Untxia           | Belea     | Azeria    |
| Txita            | Olagarroa | Zaldia    |
| Txakurra         | Behia     | Txoria    |
| Katua            | Loroa     | Urtxintxa |
| Tigrea           | Oilarra   |           |

### ZAZPI PISTAK

- Animalia naiz
- Oso zaila da ni ikustea
- Bola egiten naiz
- Askotan gauean ibiltzen naiz
- Zapaltzen nauzunean, ortozik ibiltzen bazara, min emango dizut
- Nahiko txikia naiz
- Urtaroaren arabera desberdin elikatzen naiz: xomorroak, fruitu lehorrak...





# IO EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **APIRILAK 28** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



## AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa SARA AIT BOOUAZZA txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Gu bai gu onak!** 6 urtetik aurrera

Batzuk dantza egitea maite dugu. Batzuk kantatzea maite dugu. Batzuk GURE KONTURA egiten duguna maite dugu. Berdin dio zer esaten duten: Gu bai gu onak! Istorio honek generoaren ahalduntzea du helburu, norberak izan eta egin nahi duenari laudorio.

**Jakelinen egunerokoa: ez zabaldu!** 8 urtetik aurrera

Nire izena Jakelin da. Ia 9 urte ditut. Afalorduan ustekabeko aurkikuntza bat egin dut: uste dut nire familia ez dela nire benetako familia! Susmoa dut beste mundu batetik natorrela. Beste PLANETA batetik. Orain ez dago atzera egiterik. Hemendik aurrera, nire jatorrizko etxera itzultzea izango da nire misioa. BANOIA!

**Tximeletak eta gozokiak** 10 urtetik aurrera

Kimu hipopotamo txikia beti ibiltzen zen tximeleten atzetik saltoka, eta lagunek uretara jolastera gonbidatzen zutenean, Kimuk beti ezetz. Tximeletak gero eta ugariagoak izan arren, Kimu pozik beharrea triste zegoen, izan ere igeri egiten ikasi nahi zuen, bere lagunak eta familiak bezala. Kimuk nahiko triste egoten jarraituko du, sekretu txiki bat deskubritzen duen arte... Hipopotamoek ez omen dakite igeri egiten!

**BITXIKERIAK**

*Garunak ez du minik ematen. Orratz batekin ziztatuko bagintuzte, ez genuke ezer sentituko.*



*Oso urduri eta estresatuta gaudenean, garuna txikitu egiten zaigu eta okerrago funtzionatzen du.*

*Barrea oso ona da gure garunarentzat. Barre egiten dugunean garuna ere poztu egiten da eta askoz argiago pentsatzen dugu.*





# LAU ANAIAK

*Etxe batean lau anaia zeuden.*

*Amak esan zuen:*

*– Berandu da, ohera joan behar zarete.*

*Lau anaiek erantzun zioten:*

*– Joooo, amaaa, piska bat gehiago mesedez.*

*– Bihar eskola daukazue. Lo egiten ez baduzue, nekatuta egongo zarete.*

*Lehenengo anaia esan zuen:*

*– Bale, ohera joango naiz.*

*Bigarrenak esan zuen:*

*– Ni ere ohera joango naiz.*

*Hirugarrenak:*

*– Nik ez dut hainbeste logurarik baina ohera joango naiz.*

*Eta laugarrenak:*

*– Bai, bai, ni ere ohera joango naiz.*

*Amak bina musu eman zizkien masailetan eta bera ere ohera joan zen. Baina laugarren anaia ... tabletarekin bideoak ikusten geratu zen!*

*Hurrengo goizean ikastetxean ... laugarren anaia logura haundia zuen baina beste anaiek ez.*

*Laugarren anaia damututa zegoen: - Zergatik ez nuen lo hartu?*

*Beste baterako ikasgaia ondo ikasi zuen.*

*Pin, pan, pun, ipuina amaitu da.*

**Gemalí 6. maila**



# ZU BAI MARGOLARI!

